

# AIZARTE

## *Jexux Aizpurua*

AIZARTE

Aralarko ate

pago eta arte

noiznahi arrate

antzinan gerrate

haize eta kate

eutsi goiari

noiz arte?

AIZARTE...

Mendi artean jaiok ezin hitz egin beste ezertaz, mendiaz ez bada. Leihoetatik ez dut besterik ikusten. Ibai ertzean jaiok nintzen baina beti izan dut ibai horren jatorriaz, haizearen sorreraz, gailurren pakeaz, basoen isiltasunaz jakinmina. Bide guztiek mendira

naramate. Alferrik da, ezin ihesi joan, hala ere badakit mendien urrutietan itsasoa zai dudala.

Ez zait sekula ere bururatu hainbeste aldiz zapaldu eta zapaltzen ditudan bide eta zehar hauetaz idatzi beharko nuenik; hara hemen

nere aukera eta mendiarri zor diodan gora-tzarrea.

Ataundarrek ez bada, oso gutxi ezagutzen du leku hau, bai ordea artzaiek, baserritarrek, bai garai batetako jentilek ere.

Gailurtzaleen aurka, gora mendizaleak!



*Belarririk gabeko  
«Astoa».*

**Kokaketa:** Ataungo Elabarrena auzoa abiapuntu bezala, Iztatorren harrobirako bidea hartu behar da, eta han ditugu gure aurrean Aizarteko Mailoak. Hala ere, beste bi sarrera baditu auzo honek, bata Gurutzeberri deritzaion puntutik eta bestea Kobadi zeharretik Aralegiko zelaia.

Lehen ibilaldia egiteko auzo guztia zeharkatzea pentsatu dut eta horrekin aitzakia bezala bertso bat hartu.

Udazkena da. Hostoak aspertu dira adarretan eta horbel bihurtzen ari dira. Basoak bilutsik baina ederraren ederrez. Ezkurra ere erori da gaztainarekin batera. Larreak urritu eta ardiek ez dute goian egon nahi. Artaldeak beren dilin-dalan hotsekin herrietara datoz igarotzeko larre bila. Baina denak ez dira jetxi, han gelditu dira izadiaren zaintzailtzan pagoak, haritzak, lizarrak, gorostiak, elorriak, arteak, gaginak, mailoak, txabolak eta iturriak, baita ere bela beltz, zapelari, arrano eta putreak.

Mendirako joateko berdina da edozein urtegarai. Bakoitzak bere edertasuna, grazia eta doinua du. Nahi duzunean joan zaitezke. Mendirako ez dago eguraldi txarrik. Beti du erakarpina, aide garbia, ur gardena, laino hertsia, elurra, izotza, zizak, jentilarriak, gailurrak, kobazuloak, abereak, artzaiek, zuhaitzak...



Aizkorriondo baserria hutsik.

Iturriak udan ia agorturik egon badira ere, orain bete-betea datoz lehertzen arituko balira bezala. Eta gaur nora joango gara?

Goazen Intsustira. Harrobiko sarrera harturik aurrez-aurrez jentilbaratza (Erdi Aroko gaztelu izana) eta lkandietako mailoak. Hemendik aurrera Aizarte baserri-auzoa daukagu. mailoz inguraturik. Baserri batzuetan oraindik belartsortak garraiatzeko «asto» eta kableak ikus daitezke. Imatzene baserria alboan utziz aurrera joko dugu. Laster gara bigurutzet batetan, ezkerretara bihur. Aldapa gogorra baina merezi du. Hurrengo bideturteza Muntxoetan dago. Kotxez datorrenak hemen utzi beharko bera, baldin eta zenbaiten begirada txarren bat jaso nahi ez badu behintzat.

Hemendik aurrera ikusmira asko edertuko, zaizu eta mailoak zuri-zuri eta zutik, ez zaizkigu ba gainera eroriko ez? Muntxoeta, Sategi-Saletxe, Aralegi berri, Aralegi haundi, eta Aralegiko bordak. Hor ibiliko dira urrutira gabe Patxi eta Joan artzai-baserritarrak arbia ateratzen edo. Gaztelu eta Nañarri aurrean azaldu zaizkigu bapatean. Harizti-pagadia gurutzatu eta beheruntz bost minututan Intsustira iritsiko. Atsedeneku egokia, eta Enerio Aralar-Igaratzara joateko abiapuntu ezin hobea.

Baina ez al duzu entzuten kantu zoragarri baten doinu hori? Nor ari da abesten? Intsusti.

«Aralarpeko babes batean nago paketsu eta ezti

ur gardenaren betiko otsa arturik nere abesti Euskalerriko egarrituen edan leku edo titi artu maiteok nere laztanak ezpañak nahi ditut busti ni bai naiz zuen betiko ama maite zaituten Intsusti» - Lazkao Txiki (1967)

**Baserriak:** Garai batetan ibai ertzetako baserriek beren saroi edo saletxeak zituzten abereak gordetzeko. Eta saletxe hauek baserri bihurtu ziren herriko biztanletza ugari-tzean; horrela sortzen dira Aizarteko baserriak.

Hona hemen baserrien zerrenda:

- 1.—Aitzio goikoa
- 2.—Aitzio behekoa
- 3.—Bedama
- 4.—Larditxi txiki
- 5.—Ertzillegi zaharra (h)
- 6.—Ertzillegi berri
- 7.—Aralegi haundi edo goikoa
- 8.—Aralegi behekoa (h)
- 9.—Aralegi berri
- 10.—Muntxoeta
- 11.—Amilleta
- 12.—Sategi saletxe (h)
- 13.—Kantxillu
- 14.—Aizkorriondo (h)
- 15.—Erremedio (h)
- 16.—Dostollo (h)

- 17.—Saletxe (h)
- 18.—Zeberione
- 19.—Imatzene
- 20.—Etxabeltze

*Oharra:* (h) = hutsik.



= Erremedioiko Bainuetxea.



= Jentilbaratzako Gaztelua.



= Errotatxo.

Baserri hauetan den jendearen deituraz bitxikeria bat aipatu behar da: Barandiaran deitura Ataunen hain zabaldua denez, auzo honetan lehen deituratzat dute lau baserrik eta bigarregotzat beste lauek.

**Artzantza:** Nekazaritzak ez ezik antzina-ko artzantzak ere indarrean dirau oraindik aizartearren artean, hara nola banaturik dauden beren saroietan:

Aralar - Mendibil - Muntxoetakoak (2 artzai)


Aralar - Mendibil - Aralegi berrikoak

Aralar - Mendibil - Aralegi goikoak

Aralar - Pagabe - Kantxillukoak

- Agautz - Aitzio goikoak

**Leku Jakingarriak:** Hainbat eta hainbat leizezulo eta kobazulo bada mailo hauetako artadi eta pagadietako zirriztuetan; bi ordea



nahiko bereziak, alderik alde mendia zeharkatzen dutelako, bata Atakabiko kobea Arastortzen eta Jentilbaratzen bestea.

Gure asaba eta aurreko izan ziren jentil zaharrak ibilitako lekuen artean aipagarri gerta daitezke Kobazar eta Gutzaberriko kobak. Hala ere, ezin ahaztu Aizarteko mailoek kanpo aldetik hor direla hain ospetsuak diren troskaeta, bertan ateratako «ursus spelaeus»

hartzak San Telmon daude, Limurita eta Pirkandieta, eneolitos arokoak eta Joxemi Barandiaran herritarrek aztertuak, eta Usategieta, hemen agertu ziren oraindik Gipuzkoan ezagutzen diren txanponik zaharrenak, 8 txanpon iberiarrak hain zuzen.

**Jentilbaratza:** Erdi Aroko gaztelu honek izugarritzko garrantzia izan zuen Auza-Gaz-

telukoarekin batera, Gaztelerrak eta Nafarroak elkarrekin izan zituzten liskar eta borroketan. Gipuzkoak bereganatu zuen arren, urte askotan egon zen Nafarroaren menpean; azkenik desegiteko agindua etorri zen Iruñeatik eta horren ondorio bezala, gaur egun, harresi bat eta ura gordetzeko mailoan zuten harrian landutako aska itxurako zulo bat gelditzen dira. Gero ikusiko dugun bezala, Jentilbaratzako gaina, esaunda leku aberatsa dugu ataundarrontzat gure aurrekoen bizimodu eta ibileraz zertxobait jakiteko. Bertan aurkitutako urrezko eraztuna noiz jarriko ote dute San Telmon guztiok ikus dezagun?

**Erremendioko baseliza:** XVII. mendean eraiki zen baseliza hau Sinolatza izeneko alderdian. Lekuaren aukeraketa bertako iturri usainduna zela eta egina dirudi. Bainuetxe bihurturik urte asko egon zen, gutxi gora behera mende honen hasiera arte. Lazkaoko fraile bat igotzen omen zen igande eta jai-egunez zaldiz meza ematera.

Bertako urak arraultze usaindunak bezala ezagutzen dira eta kalera ur «saindu» hori jesteko asmoak ere izan zituzten baina Amabirjiniturri deritzaion lekuan etsi omen zuten ordea. Azaleko gaitzetarako oso ona da ur hau.

Ez da garai desegokia iturri horri txukunketa eta tajuketa bat emateko, batez ere ia baselizaren aztarnarik ez denez eta denboraren joanak herriko historia suntsi ez dezan.

**Esaundak:** Guztien artean aukeraketa bat egin dugu lanaren luzapena aitzakia bezala harturik.

*Nañarri, Aralegiko bordetatik.*

*Loibe - Arantzamendi - Aizkorri.*





*Kantxillu baserria, urrutian Sastarri.*

**Txahalgorriak:** «Marumendiko saroieta-ko artzaiak, jaiegunez, Agauzko zelaiune batetan biltzen omen ziren elkarrekin, dantza eta festa egitearren. Haietatik hiruk harri batzu bota omen zituzten han inguruan da- goen leize batetara. Hori eginik bertatik txah-

halgorri bat irten omen zen. Hirurak, guztiz ikaraturik, ihesari ekin omen zioten; bat, le- her eginik Agautz gainean hil omen zen; bestea Aralegiko zelaian eta hirugarrena iri- tsi omen zen Ustatxo baserrira baina hiru egun barru hil omen zen baita ere.»

**Sugarra:** Etxe bati hiru bira emanez gero sugarra azaltzen den esaunda nahiko zabal- dua dago oraindik ere Ataunen.

«Erremedioko neska bat neskame omen zegoen herriko ostatuen. Ostegun Santuz neska horrek, Kalbario Santuko basilizari 3 bira baietz eman apustu egin zien mutil batzuei. Baina bigarrena eman zuenean haize purrustada bat sortu eta berarekin ezkutatu zen, ondorengo hitz hauek entzuten zirela- rik: «Gaua gauekoentzat eta Kattalin gure- tzat».

*Jentila zelatan dago.*





## JENTILBARATZAKO JENTILAK

### Ataungo Euskaran

Lenao Jentilbatzan jentillek bizi izate ementzien. Askotan gauz Agerrea jexten mentzien jokun aitzeko eunsentin oillarrak kukurrukue jo arte.

Bein baten Agerreko nausie gaixotu ein mentzan da Elizakok eitea pentsau mentzuen. Jentillek au jakintzuenen, kristauek ez izenatio, urrezko sobrakamea ekarri ta beakin gaixon oia jantzimentzuen Elizakok juteako.

Agerrekok ue ikusi zuenen uexe nai izen ta oiai iltzez josi mentzien, ta geoxago oillarrak kukurrukue joazin e. Jentillek aitu zuenen en sobrakamea eamateko asmokin jun mentzien baiño presaka zienez tiraka ezin ta an utzi bearra izen mentzuen.

Ordun jentillek deadar ein mentzuen esanez, Agerre Agerre zan bitarten etxe artan etzala sekula erik eo makik paltako. Ta arrezkeo beti izen men da Agerren eri eo makin bat.

«Hori hola bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Vitoriako plazan»

### Euskara Batuan

Garai batez, Jentilbaratzen, jentillak bizi omen ziren. Askotan gauz Agerrera jexten omen ziren jokuan aritzera egunsentian oillarrak kukurrukua jo arte.

Behin batetan, Agerreko nagusia gaisotu omen zen eta Elizakoak egitea pentsatu omen zuten. Jentilek, hau jakitean, urrezko sobrekama ekarri eta berarekin gaisoaren ohea jantzi omen zuten Elizakoak joaterako.

Agerrekoek, hura ikustean, iltzez oheari josi omen zioten eta oillarrak kukurrukua jo erazi. Jentilak kantua entzun zutenean beren sobrekama eramateko asmoz joan omen ziren baina presaka zirenez eta tiraka ezin izan zuten eraman.

Orduan jentilek egin omen zuten esanaz: Agerre Agerre zen bitartean ez zela eririk ez makirik faltatuko.



Aralegi Berriko artasoroko kusoa.

### IBILBIDEAK

1.—Imatzene - Larditxiki - Beama Iturri - Beamako Zelaia - Soandiko Arloskata - Bordalde - Errekalde - Aitzio - Erremedio - Sinolatza - Xaguxar - Aldasparrena - Aleiko Zelaia - Intsusti.

2.—Elbarrena - Irubide - Agerre - Iran - Urdano - Ikandieta - Kanpaintso - Loibeko Txuloa - Gaztain Ekarre - Beamako Zelaia - Beamako Iturria - Gorostiza Txiki - Berdai - Muntxoeta - Amilleta - Kantxillu - Aizkorriondo - Aizkoate - Saletxe - Dostoillo - Harrobia - Arrateta - Elbarrena.

3.—Artzate - Gutzaberri - Ertzillegi - Muntxo - Gaztainadi Txulo - Txikitxarretartaso - Mutegigüena - Tipoloso - Belartsoberri - Luizitxiki - Arriluizi - Ikutzeta - Aldasparrena - Beanbu - Gortxa - Donjoan Aiztiko Iturria - Sauso - Aitzio - Beamako Zelaia - Gaztaina Ekarreko Tontorra - Loibeko Txuloa - Kanpaintso - Ikandieta - Urdano - Iran - Agerre - Elbarrena.

4.—Elbarrena - Arloska - Gutza - Aiztondo - Andravideta - Jentilbaratza - Aizkoate - Aizkorrandi - Arastortz - Atakabiko Koba - Aleiko Zelaia - Aldasparrena - Aldatsoko Iturria - Agauzko Arratea - Leizadi - Asundi - Iruzulora - Muntxo - Ertzillegi - Beama - Olata - Loibeko Lepoak - Ikandieta - Urdano - Iran - Agerre - Elbarrena.



Aitzio goiko artzakurra.

Eqilaren argazkiak

### AIZARTEARREN JATORDUA UDAZKENA GIROTZEKO

**Gosaria:** Aitzio Beheko Taloak Bedamako Imaztarren Urdai Errearekin. Edo Muntxoetako Aierditarren Baratzuri Zopa.

**Hamaiketakoa:** Aitzio Goiko Ogia Kantxilluko Gaztaiarekin.

**Bazkaria:** Etxabeltzeko Babarrunak. Imatzeneko Txerrikia edo Amilletako Onddo Tortila. Larditxikiko Sabar Erreak edo Bedamako Arrozesnea.

**Askaria:** Aitzio Goiko Ogia eta Zeberioneko Lukainka.

**Afaria:** Aitzio Goiko Mondeju Zopak. Aralegiko Berriko Mondejuak. Aralegi Goiko Sesinea. Muntxoetako Sukiatarren Gaztanbera.